

Denboraren makina

N A G O R E I R A Z U S T A B A R R E N A

Thomas Jefferson eta klima aldaketa

JOHN TRUMBULL



Thomas Jefferson 1778an. Ordurako bi urte zeramatzen eguraldiari buruzko datuak biltzen, klima aldaketak kezkatzen baitzuen.

gutxitan, astebete. Zaharrek esan didatenez, elurrak urtero hiru hilabetez estali ohi zituen lur hauek, eta gaur egun ia sekula izozten ez diren ibaiak negu oro izozten ziren. Aldaketa honek tenperatura gorabehera handiak ekarri ditu udaberri honetan eta hori oso kaltegarria izango da uztarentzat”.

Aldaketa hori gizakiak eragindakoa zela uste zuen Jeffersonek; baso azalera handiak soilten ari ziren AEBen nekazaritzarako soroak zabaltzeko, eta horrek klima aldaketarekin lotura zuzena zuela uste zuen.

1799an Thomas Jeffersonek abiatutako eztabaida Connecticuteko Arte eta Zientzia Akademia sortu berrira iritsi zen, eta hantxe itzali zen, Noah Webster AEBetako hezkuntza sistemaren aitaren eskutik (1758-1843). Websterren esanetan, Jeffersonek bildutako datuak ez ziren zehatzak eta ez zuten ezertxo ere frogatzen, pertsona bakarrak toki gutxitan hartuak zirelako. Gainera, klima aldaketaren teoria herritarren sineskerietan oinarritu izana leporatu zion garai hartan AEBetako presidenteorde zen Jeffersoni. Websterren arabera, aldaketak oso bakanak eta “mikroklimatikoak” ziren.

Handik bi urtera, 1801ean, Thomas Jefferson AEBetako presidente izendatu zuten, eta zortzi urtez potentzia berriaren burua izan zen. Baina 200 urtez klima aldaketari buruzko teoriak oihartzun urria izan zuten, eta Websterren tesia nagusitu zen.



Arrastoak

Europako errepide maparik zaharrena berrituratu dute

TABULA PEUTINGERIANA delakoa Erromatar Inperioko IV. mendeko bideak jasotzen dituen dokumentu kartografikoa da. Gorde diren aleak XIII. mendean monjeek egindako kopiak izan arren, Europako errepide mapa zaharrena dela esan daiteke. Maparen berezitasun nagusia munduko bola erabat deformatuta, luzatuta irudikatzen duela da, pergamino zerrenda luze batean marraztu baitzuten.

Cambridgeko Unibertsitateko Richard Talbet irakasleak maparen bertsio interaktiboa sortu du berriki, eta René Voorburg irakasle holandarrek Google Mapsen tresnak erantsi dizkio, erabiltzaileek mapa eguneratua Interneten eskuragarri izan dezaten (www.omnesviae.org).



CONRADI MILLIERI



Goian, *Tabula Peutingeriana*-ren xehetasuna. Azpian, mapa bera Interneten eguneratua.

VIRGINIA (AEB), 1776KO UZTAILAREN 1A. Thomas Jefferson (1743-1826), AEBen aita fundatzaileetakoa, urte bereko Independentzia Deklarazioaren egile nagusia eta geroago herrialde berriko hirugarren presidente izango zena, eguneko tenperatura eta eguraldiaren fenomeno gutxiak jasotzen hasi zen bere egunkarian. Hilabeteko eta urteko batez bestekoak kalkulatu zituen gero, eta inguruko zaharren kontaktuzunak eta ahozko tradizioari esker gordetakoak ere bildu zituen. Klima aldatzen ari zela uste zuen.

1781ean kezka hura *Notes on the State of Virginia* (Virginiako estatuari buruzko oharra) lanean azaldu zuen: “Klima nabarmen aldatzen ari da. Neguak askoz neurritsuagoak dira. Elurra ez du hain maiz egiten eta, egiten duenean, gutxiago botatzen du. Sarri, ez dago elurrik mendien magaletan, gehienez ere bizpahiru egun irauten du, eta oso